


Aisialdiko begirale ikastaroa

OHARRAK

- » Ikasle kopurua mugatua da, beraz, matrikula-dataren arabera osatuko da taldea. Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgoek lehentasuna izango dute.
- » Bajak eta diru-itzulketak:
 - Ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago jakinaraziz gero, matrikula osoa itzuliko da. Hala egin ezean, % 80 soilik itzuliko da.
 - Behin ikastaroa hasita gero ez da dirurik itzuliko.



Antolatzaileak: Buruntzaldeko Udalak eta Urtxintxa eskola.



Aisialdiko begirale ikastaroa

ANDOAIN, ASTIGARRAGA,
HERNANI, URNIETA ETA
USURBILGOENTZAT

2009/2010

Aisialdiak gero eta garrantzi handiagoa du gure inguruan. Haur-txokoak, asteburuetak ekintzak, eskola-kirola, udalekuak..., hainbat eta hainbat jardura antolatzen da herrian haur eta gaztetxoei zuzenduta, eta euskaraz.

Esparru honetan lan egin nahi duten gazteentzako formakuntza eskaintzea da ikastaro honen helburua.

Aisialdiro begirale ikastaroa

2009/2010

Egitaraua:

Aisialdiaren oinarriak: Soziologia, pedagogia, psikologia, antolakuntza, hezkidetzak, ingurugiroa, drogamenpekotasunaren prebentzioa, soziolinguistika, gure herri eta bailarako hizkuntzaren errealitatea...

Aisialdirako animazio teknikak: jolasa, talde-dinamika, tailerrak, antzerkia, lehen sorospinak, irudi eta informaziorako teknikak, musika, udalekuak...

Aisialdiko esperientziak: Haur-txokoak, eskal txokoak, olinpiadak, gazte-txokoak, natur eskolak...

Baldintzak:

- 18 urte beteta izatea ikastaroa hasten denerako.
- Euskalduna izatea.

Egutegia:

Iraila	25	26							
Urria	2	3	16	17	18	23	24		
Azaroa	6	7	8	13	14	20	21	27	28
Abendua	11	12	13	18	19	28	29	30	
Urtarrila	15	16	22	23	24	30			

Saioak ostiraletan eta larunbatetan izango dira. Goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 15:30etik 19:30era, gutxi gorabehera. 4 asteburuak (beltzez daudenak) aterpetxe batean igaroko dira eta kasu horietan ostiral arratsalde hartuko da autobusa eta igande eguerdian bukatuko da saioa.

Orduak guztira: 200

titulazioa:

Ikastaro teoriko hau eginda, praktikak burututa eta memoria aurkeztuta, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulua jasoko da.

Horretarako ikasleek gehenez hiru falta egin ditzakete. Bestetik, praktikak bilatzea ikasleen zeregina izango da baina zailtasunak dituztenean, Urbintxa eskolaren laguntza izango dute. Praktikak ikastaroa egiten den ikasturtean, udan edota hurrengo ikasturtean egin ditzakete.

IZENA EMATEHO:

Lekua: Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Usurbilgo Udaletako euskara zerbitzuetan
tel. 943 300 830
e-mail: euskarazerbitzua@andoain.org

Epea: Irailaren 18ra bitartean

Prezioa: 360 - . (Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgoentzat).
560 - gainerakoentzat.

Aterpetxeetako egonaldietako garraio gastuak ikaslearen kontura izango dira.

Ordainketa: Gipuzkoako Kutxan 2101 0095 56 0002032985 Izen-abizenak jarri.

Dokumentazioa:

- Argazki bat.
- Dirusarreraren agiria.
- Nortasun agiriaren fotokopia
- Matrikula-orria beteta

Dokumentazio guztia entregatzea nahitaezkoa da matrikula egintzat emateko.

